



Defendatzaileen Buletina

Otsaila 2022



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Aurkibidea

Aurkezpena.....	2
Zergatik diogu lurraldearen defendatzaileak garela?.....	3
Floralma Adeli Martinezi Elkarrizketa.....	5
Argazkierreportajea.....	9
Mariana Moralesi elkarrizketa.....	12
Agenda martxoa	16
Olerkia. Rosa Chávez.....	17



Aurkezpena

Irakurle maitea,

#OihartzunTalka kanpainaren hirugarren buletina aurkezten dizugu. Gure lurraldeak hurbiltzeko eta sistema kapitalista heteropatriarkalaren aurkako borrokak batzeko helburuarekin Lumaltik Herriak erakundetik ilusio handiz bultzatu dugun kanpaina, hain zuzen. Euskal Herritik, bozgorailu gisa jardun nahi dugu, elkar ezagutzeko eta, batez ere, Erdialdeko Amerikako gorputz eta lurraldeen defendatzaileek bizi duten errealitateaz sentsibilizatzeko. Horretarako, euskal biztanleekin elkarrizketarako eta hausnarketarako guneak sortzea da gure nahia.

Lehen buletinak ikusi ez badituzu, gogorarazten dizugu #OihartzunTalka 2021eko udaberrian kaleratu zela, Erdialdeko Amerikako emakumeek bultzatutako bizitzaren eta lurraldearen defentsa-prozesuetan jasandako egoeren aurrean ahotsa altxatzeko helburu tinkoarekin. Komunitatearen defendatzaile izateak dakarren egoerak salatu nahi ditugu, haiek burututako ekintzak sistema kapitalista estraktibista eta patriarkalaren aurka duten eragina gurera ekarriz. Sistema honek maila globalean inposatzen da eta sistematikoki bortxatzen gaitu uneoro. Hau da, salaketa-kanpaina bat sustatu dugu, gogoeta egiteko eta zaintza eta autodefentsa-ekintzak bideratzeko.

Buletin honetan feminismoei, zainketei, gure gorputzen eta ingurumenaren defentsari buruzko artikulu interesgarriak aurkituko dituzu. Horrez gain, defendatzaile izatearen esanahiaren gaineko informazioa, elkarrizketak, Euskadin izandako azken biraren inguruko argazki erreportajea, laster egingo ditugun jarduerak, poemak, kontakizunak... eta askoz sorpresa gehiago!

Edozein zalantza edo iruzkin egin nahi badiguzu, idatziezaguzu hezkuntza@lumaltik.org helbide elektronikora edo jar zaitez gurekin harremanetan gure sare sozialen bidez.

Aurrera!



Zergatik diogu lurraldearen defendatzaileak garela?

Ilustración: Beatriz Aparicio (@beaaparicioart)

Lurraldearen defentsaz ari garenean, ez gara ingurumen justiziaren esparruaz soilik ari, gai historiko, kultural eta politikoaz ere ari gara. Lurraldearen defendatzaile garen heinean, gure ingurunea, kultura eta erroak bizirik mantentzeko



eskubidearen alde borrokatzen ari gara. Errukirik gabe suntsitzen gaituen kapitalismo-patriarkatu harreman horretatik babestea da gure helburu nagusia. Neoliberalismoak lurra bere onurarako menperatu nahi duen bitartean, baliabide naturalak mugarik gabe ustiatuz, patriarkatuak gu geu menderatu nahi gaitu gure eskubide eta askatasunak kenduz.

Gure ustez, gure borroka lurra defendatzetik harago doala argitzea garrantzitsua da, gure borroka lurraldea defendatzeren alde dela. Alde batetik, lurra defendatzen dugu haren ibai, baso eta mendien oinordeko garelako, gure existentzia eta datozen belaunaldiena bera zor baitiogu. Lurra erasotzeak geure burua ere erasotzea esan nahi duelako, naturarik gabeko planeta bat planeta bizigaitza izango delako. Bestalde, lurraldeaz ari garenean, gure identitate propioa osatzen duen talde geografiko, kultural, espiritual eta politikoaz ari gara, eta gure lankideek, Erdialdeko Amerikako emakume defendatzaileek (jatorrizko herrietako kide diren emakume indigena eta mestizoek) beren ibaiak, herriak, askatasunak eta bizitza bera babesteko borroka nekazina irakatsi digute.

Hondurasen, Guatemalan, El Salvadorren edo Mexikon lurraldea defendatzea ez da justizia kontua bakarrik, biziraupen kontua ere bilakatu da. Izan ere, Erdialdeko Amerikan, erresistentzian dauden indigenen aurkako giza eskubideen urraketak ematen dira egunero, beren etxeetatik indarrez kanporatzeko helburuarekin.



Ekimena gobernuek enpresa transnationalekin egindako merkataritza akordioetan du bere abiapuntua, lurralde horietan etekin ekonomikoa lortzeko aukera ikusten baitute, energia, meatzaritza edo hidroelektrikoarekin lotutako megaproiektuak ezarriz (nahiz eta herriei eta inguruneari kalte konponezina eragin). Baina indarkeria ez da soilik defendatzen duten lurraldeetan gertatzen. Askotan, erasoen eta etengabeko jazarpenen ondorioz, migratzea bilakatzen da haien aukera bakarra. Gainera, alde egiteko eta familia osoak eta bizipenak atzean uzteko tristurarekin batera, iritsiera lekuan indarkeria berriei aurre egin behar izaten diete, bizi-baldintza duinak izateko aukerarik ematen ez dien sistema arrazista baten ondorioz.

Lurraldea gure gorputzekin lotzen gaituen bizi-sare gisa ulertu behar da, harreman estu bat sortzen duena emakumeen gorputzen eta lurraldeen defentsarako borroken artean. Gorputza da gure lehen lurraldea, eta hura zaindu, babestu eta defendatu beharko dugu lurra bera defendatzen dugun antzera. Izan ere, sistema kapitalista, neoliberal, heteropatriarkal eta kolonial honek sistematikoki bortxatzen ditu gure gorputzak, naturarekin egiten duen antzera. Sistema horrek bi lurraldeen erabateko nagusitasuna bilatzen du, eta emakumeen, migratzaileen, indigenen, nekazarien, arrazializatuen eta sexu-disidenteak baztertzen, bortxatzen eta sistematikoki diskriminatzen dituen boterea sortu eta indartzen du. Izan ere, kapitalismo patriarkalaren adibide esanguratsuena, beren lurraldeak defendatzen dituzten emakumeak euren gorputzak nola bortxatzen dituzten ikustea litzateke.

Gure borroka kolektiboa da eta mugak zeharkatzen ditu. Erdialdeko Amerikatik Euskal Herriraino aliantzak sortzen ditugu eta elkar zaintzen dugu. Egunero borrokatzen duten, erresistentzian bizi diren eta eskubideak aldarrikatzen dituzten emakumeen bozgorailu gisa jarduten dugu; migratzeko eskubidea aldarrikatzen dute, baina baita beren lurraldeetan geratzeko eskubidea ere. Haien identitate, sinesmen edota maitatzeko moduak edozein izanda ere aske izateko eskubidea. Hertsatuak izan gabe komunikatzeko eskubidea, bakean bizitzeko eskubidea.



Floralma Adeli Martinezi Elkarrizketa

(Mujeres de Petén Ixqik elkartearen koordinatzailea)



“ Sistema honek izorratuta gaitu ”

"Candela Radio" irratian Sayuri Nishime-k eginiko elkarrizketa

Candela Radio <https://candelaradio.fm/> kultura arteko komunikazio-proiektu bat da, aldaketa sozialak eta herritarren parte-hartzea sustatzea helburu duena, eta giza garapenerako elkarrizketa-bide gisa funtzionatuz, herrialdean dagoen aniztasun kulturala eta eleaniztasuna nabarmenduz.

Guatemalar defendatzaile eta komunikatzailea tinkoa da bere hitzetan. Emakumeak hunkitzen dituzten indarkeria ugariak ezagutzen ditu, berak istorio propio bat sendatu behar izan baitu. Errealitate hori bat dator entzuten dituenekin eta Mujeres de Petén Ixqik elkartearekin laguntza eskaintzen die. Horietatik guztietatik, salaketa espazioetan egotearen garrantzia aldarrikatzen du, baina baita zainketena ere, emozioen, gorputzaren eta buruaren sentipenetik ulertuta. Horiek elkar ezagutzeko eta emakume gisa batzen dituen alaitasuna ospatzeko modu bat da. Hau da bere proposamena sistema kapitalista, estraktibista eta patriarkal honen aurrean.

Zainketei buruz aritzen garenean, norberaren burua entzuteaz, sentitzeaz eta gorputzaren, buruaren eta emozioen inguruan hausnartzeaz ari gara. Nola sentitzen zara momentu honetan?

Nola sentitzen naiz? Nola dago nire erakundea, nire familia, nire herrialdea?

Aztertzen ez diren gauzak dira, eta are gutxiago, emakumeok emozioak sentitzeko aukera ematen digute. Zer sentiarazten digu baina bat bakarrik eta lasai hartzeak? Zerk sentiarazten gaitu oinez ibiltzeak? Zer sentiarazten gaitu oinak oinutsik egoteak uretan, lokatzean, lurrian? Sistema kapitalista, matxista eta misogino honek bizitzaren alaitasuna lapurtu digu emakumeoi. Esperientziak partekatzen ditugun espazioetan, elkar zaintzea eta taldean sendatzea berreskura dezakegu zorionez. Ni hasita, nola sentitzen naiz? Zer ari da sentitzen nire bihotza, nire izpiritua momentu honetan? Uste dut hortik abiatu behar gara emakumeok elkar aurkitzeko, sendatzeko, elkarrekin egoteko, proposamenak egiteko... Izan ere, maite ez gaituen eta etengabe izorratzen gaituen sistema honetan, emakumeok proposamen ugari egin ditugu, eta horregatik egin dugu aurrera. Beste bizikidetzak-modu batzuk eraikitzen joan gara.



Mujeres de Petén Ixqik Elkarte 1997an sortu zen, hainbat udalerritako, komunitate mestizo eta indigenetako 127 emakumeren partaidetzarekin, Bake Akordioetan emakumerik ez egoteari erantzuteko. Zeintzuk dira espazio horren lan ildo nagusiak?

Lau lan esparru ditugu. Lehenengoa, Emakumeen Gainditze Pertsonala Ongi Bizitzerako, eta horretarako emakumeen sendotze, sentsibilizazio eta trebakuntza guztia Petén departamentuan egiten dugu. Gero, CAIMUS dugu, indarkeriatik bizirik atera diren emakumeentzako arreta-zentroa. Bertan, zuzeneko arretaren osoa egiten diegu indarkeriatik bizirik atera diren emakume, haur eta nerabeei, bai eta sexu-indarkeriaren biktima izan diren mutikoei ere. Hori da emakumeentzako zuzeneko esku-hartzearen esparrua. Gero beste bi departamentu ditugu, sakonagoak direnak. Administrazioaren eta barne-indartzearenak dira horiek.

Barne-indartz

eari dagokionez, gure artean geure buruak zaintzeko estrategiak ditugu, indartzeko eta sendatzeko, indarkeriak artatzen ditugulako bai, baina defendatzaileoi inork ez digu inoiz galdetzen nola gauden. Nire ustez, emakumeen erakundeetan eta gizarte-mugimenduetan edo espazio mistoetan lan handia egiten dugu, baina beti kanporantz begiratuz. Arazo pilo zaintzen eta artatzen ari gara bai, baina ez diegu inolako kasurik egiten gure gorputzei, gure erakundeei. Ixqik-en ustez, emakumeak bere barnerantz begira artatzea, geure burua indartzea geure burua zaintzeko ere estrategia bat da, iraunkortasuna ematen diguna eta antolatuta egoteko konpromisoa berresten diguna. Aitak zioen bezala: "Pertsona bakar batek gauza bat egin dezake, baina antolatutako emakume gehiagorekin batera, askoz gehiago egin dezake". Bertatik abiatzen dira autozaintzarako ditugun barne-espazioak. Hilero, bulegoa itxi, elkarri arreta eman eta espazio hori hartzen dugu. Urtean zehar beste bi espazio ere egiten ditugu, bat sei hileko bakoitzeko. Horietako bat barnekoagoa dela esan genezake, sendatzeko espazioa alternatibo bat alegia, Guatemalan ezagutza eta jakinduria asko ditugulako.

Bizirik dirauen hitza indar handiko hitza da, eta askotan oso zaila da hitz horren atzean dauden istorio guztiak irudikatzea. Bost silaba horietan onarpena, salaketa eta aldarrikapenak daude. Nolako da bizirik zaudela aitortzeko prozesu hori?

Indarkeria identifikatzeko prozesuan erabaki bat hartu behar da, eta bizirik atera den emakumeak bere burua sentitu behar du. Oro har, erakundera iristen direnean, emakumeek mantenu-pentsioa eskatzen dute, hori baita deliturik agerikoena, baina elkarrizketa egiten zaienean eta entzuten zaienean, emakumeak ere indarkeria sexuala, psikologikoa eta indarkeria fisikoa jasan dutela ulertzen duzu. Orduan, indarkeria gurpil zoro batean daude, eta eurek ere ez dute identifikatzen kasu gehienetan, une horretan bertan beren eskubideak aitortzen ez dituzten emakumeak baitira. Guatemalan, baina baita Erdialdeko Amerikan ere, normala da 15 urteko emakume asko seme-alabak izatea eta elkartuta egotea (bikote batekin bizitzen). Guatemalako Femizidioen Legeak 14 urte bete baino lehen delitu bat dela dioen arren, salatzen ez diren haurdunaldi asko daude, jarraitzen ez direnak gehienetan, eta nahiz eta prozesuak ofizioz izan, salaketak kendu egiten dira handik gutxira.

Horrela ailegatzen dira emakume asko eta asko, ia beren eskubideak ezagutu gabe, Lege-prozesutik pasatzen direnean, arreta psikologikoa eta soziala behar dute, eta hainbat emakumek psikiatratik pasatu behar izaten dute, gorputzak kolapsatu egiten baitu traumen ondorioz, espirituak ez du gehiagorik jasaten eta bihotzak gainezka egiten du. Kasu horietan, beste interbentzio mota bat beharrezkoa da. Prozesu horiek egin ondoren, emakumeak sendatze kolektiboko talde batetik igarotzen dira ere (Autolaguntza Taldeak), prozesu indibidual batetik pasa diren guztiak prozesu kolektibo batera pasatzen dira. Ondoren, ahalduntze politikoa lantzen duen beste batera doaz, euren eskubideak ezagutzera ematen zaizkienak, baina baita xanpua nola egin, xaboa organikoa nola egin, beren bizi-proiektuak nola aurrera atera, zer plan egin ditzaketan, zer pentsatzen duten, nola berreskura ditzaketan beren bizitza-prozesuak etab.



Emakume askok euren proiektu pertsonalak dituzte. Euren buruak eta seme-alabak mantentzen ari dira. Badira kolektibitatean antolatutako emakumeak, legezko esparrutik igaro ondoren taldeak sortu dituztenak. Adibidez: Petenen dauden emakume errefuxiatuek jantoki mugikor bat antolatu dute. Orduan, euren artean ere identifikatu egiten dira gertatu izan zaien zerbaitetik, bizi izandako kasu batetik, eta horrek ere indarra ematen die elkarrekin lanean jarraitzeko eta beste gauza batzuk egiteko, emakumeen artean aurrera egin ahal izateko. Hortik abiatuta, nire ustez, informazioerako eskubiderik ez duten beste emakumeekin antolatuta gauden emakumeak ere inspirazio iturri bilakatu garela beren bizitzak aldatzeko saiatzeko. Bizitza istorio bat entzuteak, lankide bati gertatu zitzaiona entzuteak edota indarkeria egoera batean daudela onartzeak ere ahalbidetzen du prozesu guzti hori. Nahiz eta gertakaria oso txikia izan, edo gertatu dena, indarkeria izateari utzi gabe, ez dugu indarkeria normalizatu behar, normala ez delako eta salatu eta ikusarazi egin behar delako.

Egunez egun istorio asko iristen zaizkizu bizirik atera direnengandik, entzuten dituzunak, konektatzen dituzunak, batzuetan identifikatu egiten zara eta lagundu ere egiten duzu. Nola egiten da posible zainketak ardatz nagusi jartzea buruan, emozioetan eta gorputzean ukitzen zaituzten gaiekin?

Ez dugu indarkeria inon eta inoiz normalizatu behar. Bestalde, emakume garen heinean, neska jaitzen garenetik garenetik emakumeekin historia komuna dugun sistema batean gaude, eta asko eta asko sexu indarkeria ingurune batean sortuak garelako. Era berean, zentzura iristen diren emakumeak eskubideak dituzten subjektu gisa jaso behar ditugu, ez guk laguntzea behar duten behartsu gisa, baizik eta beren bizitza-istoriak berreskuratu behar dituzten emakume gisa, beren eskubideak aldarrikatu behar dituzten emakume gisa, espazio horiek beraietzat aurkitu behar dituzten emakume gisa. Beste emakume batzuekin eta beren buruekin topo egin, sistema horrek emakumeok gure gorputzetatik erauzten gaituelako, nortasuna kentzen digulako, alaitasuna. Hau da, emakumei subjektu, gizaki, emakume izateak jasotzea eta hortik abiatzea, lege-prozesu bat konpontzeaz

haratago, laguntza eta arreta behar duten pertsonak dira. Emakumeek beren burua aztertzen, aldarrikatzen eta ehunak berriz iruten dituzte haiekin, familiekin, seme-alabekin, kideekin... baina baita komunitate mailako sareekin ere.

Bide horretan, beste emakume batzuk aurkitzen dituzte ere, artatzen ditugunak ez garelako super-emakumeak azken finean. Emakumeak gara, historia propio bat dugunak eta eurekin bat gatozenak. Orduan, uste dut alde hortik hunkitu egiten gaituztela, ez dugu ahaztu behar gizakiak garela eta nahiz eta sistema honek makina gisa ikusi nahi bagaitu ere (etengabe lan eginez, ekinez eta inoiz gelditu gabe) momentu batean "ezin dut gehiago" oihuka behar dugu. Batzuetan, gelditu eta gorputzak esaten digunari entzun behar diogu, ez diogulako arretarik jartzen gehienetan. Buruko mina edota katarro bat, emakume artean askotan izan ohi duguna eta batak duenean, albokoak ere gaixotasun hori berea egiten du. Adibidez, batzuetan min ematen digu sorbaldan eta esaten dugu: "A, nekatuta nago! Zer egin dut aste honetan? Zer egin dut egun honetan? Egiten ari naizenak badu zentzurik niretzat? Zer nahi dut nik emakume gisa? Beraz, geure burua zalantzan jartzeari ez uztea guretzat onuragarria dela uste dut eta ez sorgor bilakatzea, baizik eta indarkeria normala ez den eta ahanzturan utzi behar ez dugun zerbait bezala antzematea. Seydik dioen bezala (Seydi Irias Castellanos, Cattrachas Sare Lesbikokoa, Honduras), oroimena oso garrantzitsua da eta, emakume gisa, antzinako memoria horrek, gure arbasoek ere zeukaten jakituria hori, indartu egiten gaitu orain; baita eskubideak aldarrikatzen dituzten antzinako praktikak ere. Emakumeek kolektibitatean eta norbanakoan sendatzen laguntzen gaituzte.

Euskal Herria bisitatu ondoren, zer aliantza eratu dira edo ehuntzen hasiko dira topaketan ondoren?

Hain zuzen ere, astero transmititzen dugun irratsaio bat daukagu eta orain burura etorri zaigun gauzetako bat da zuekin (Candela Radio) komunikazio materiala trukatu dezakegula, elkarlanean arituz. Beste emakumeekin eta beste sareekin konektatzeko modu bat izan daitekeela dela uste dut. Oso pozik noa Euskal Herriitik, Erdialdeko Amerikako gure herrialdeetan



gertatzen diren errealitateetatik isolatuta ez dauden emakumeekin denbora eta espazioak partekatu ahal izanagatik.

Egia da badirela espazio hobeagoak, heziera onekoak, emakumeek parte har dezaketen espazioak baina, nik uste, bada beste errealitate bat ere -eta errespetu osoz esango dut-: teoriaran genero anitzeko espazioak badira bai, gizonak eta emakumeek parte-hartze bera duten espazioak, baina, azkenean, ahotsa hartzen jarraitzen dutenak, lehen hitza dutenak eta espazio hauek hartzen dutenak gizonetzkoak dira oraindik ere. Eta hori hemen bizirik dirauen errealitate bat da, hemen izan garen denbora honetan ikusi eta antzeman ahal izan duguna.

Lumaltikek, Idilyren eta Juanaren bidez, sortu dituen espazio horiek irekitzea ere, emakumeen artean bakoitzak dakienetik hitz egin dezagun eta partekatu ahal izan ditzagun, asko balio dute. Izan ere, legeek bestelako zerbait esaten badigute ere, eta nahiz eta politikoki herrialdean emakumeek aukera gehiago dituztela esan, errealitatea oso bestelakoa da. Emakumeen sentipenetik errealitatea bestelakoa da, eta uste dut alde horretatik ere hemengo emakumeekiko lotura hori nirekin eramango dudala, eta sare izaten jarraituko dugula berriro hona bueltatzen garenean, eurek etorriko direnean eta, azken finean, bidean izango garenean. Historikoki, emakumeak munduko edozein lekutatik lagundu izan gara betidanik, eta hori oso esanguratsua eta iraultzailea dela uste dut. Izan ere, elkar maitatzen jarraitzen dugun bitartean, gauzak argi eta garbi esaten jarraituko dugu, baina baita errespetuz ere, eta hortik abiatuta guztion artean eraikitzen lagunduko diogu elkarri.

Bizitzari eta unibertsoari eskerrak eman nahi dizkiot, beste herrialde batzuetan topo egiteko aukera eman izanagatik. Izan ere, borrokan ari garen emakumeen bideak beti bat etorriko dira beti denboraren uneren batean; eta topo egitean, mundua aldatzen lagunduko diguten ideia iraultzaileak proposatuko ditugu betiere.



Argazki-erreportajea

Otsailan, Chiapaseko, Guatemalako, El Salvadorreko eta Honduraseko defendatzaileak gurekin izan ziren, hainbat defentsaren eremutatik euren esperientziak partekatzen: lurra, ondasun komunak, kulturak, emakumeen gorputzak eta sexu aniztasuna.

Hilean zehar, topaketak antolatu ziren Euskal Herriko hainbat herri eta hiritako kultur etxe, institutu eta unibertsitatetan: Bilbo, Santurtzi, Donostia, Hernani, Mutriku, Ondarru eta Deba esaterako. Ekitaldi horiei esker, euskal herritarrengana hurbildu ginen, esperientziak trukatu eta nazioarteko elkartasun aliantzak egin genituen. Guztira, adin guztietako 70 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten jardunaldi ezberdinetan.

Argazki-erreportaje honetan guretzako hain berezia izan den bira honi omenaldi txiki bat egin nahi diogu.

Defendatzaileen: Otsaila 2022



"Sendatze-prozesuak, autozainketa eta artea lurraldea eta emakumeen gorputzak defendatzeko alternatiba feministak bilakatu dira gaur egun."

Lucía Ixchiú eta Flory Martínez, guatemalar feminista komunitarioak



Parte hartu zuten defendatzaileak

Seydi Irias (*Red Lésbica Cattrachas*)
Florialdama Adeli Martínez (*xqik Elkartea*)
Mariana Morales (*Kazetari beregaina*)
Lucía Ixchiu (*Festivales Solidarios*)
Emilia Larrondo eta Cony Carranza Castro (*Mujeres del Mundo Babel*)
Reyna Tercero (*EH Feministak Nika*)
Deisy Rivera (*Herri komunikatzailea*)
Dalila Argueta (*Erresistentzian bizi den Guapinol komunitatea*)
Soraya Ronquillo y Katia Reinberg (*Bidez Bide Elkartea*)



“

“Ezin ditugu gure minak inposatu, baina bai ahal ditudala nire sentimenduak maitasunetik eta hurbiltasunetik plazaratu, inposiziorik gabe betiere”

Reyna Tercero, feminista eta EH Feministak Nika-ko kidea

”



“

“Hainbeste barneratzen gara testuinguru horietan, ezen ez gara konturatzen zer bizi dugun eta ez dugu deskonektatzen, horrek gorputzean jotzen gaitu eta osasunari eragiten dio dudarik gabe eta arriskuan jartzen gaitu, ni lurraren defentsan aritzetik ito egin nintzen azkenean”

Mariana Morales, Chiapasko kazetari eta erreportari independentea

”



“Euskal Herrian migratutako eta arrazializatutako emakumeek egiturazko diskriminazioari, eskubide politikoak ukatzeari, lana, etxebizitza, osasuna edo hezkuntza lortzeko zailtasunari egin behar diete aurre besteak beste. Horrek haien garapena mugatzen du, baita esparru sozial eta politikoko bazter guztiak ere. Emakume migratu gehienak zaintza-lanetan aritzen dira, feminizatutako eta prekarizatutako merkatu-nitxo batean. Emakumeak ezkutuko ekonomia batean sartzen dira, non beren eskubideak ez diren aitortzen eta errespetatzen. Gainera, mespretxua, diskriminazioa, laneko jazarpena eta sexu-jazarpena behin eta berriz gertatzen diren ekintzak erregistratzen dira. Lurralde honetan, emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria patriarkala areagotu egiten da, arraza eta klase maila dela eta”

Emilia Larrondo, Emilia Larrondo, soziologoa, aktibista feminista dekoloniala eta soinu tropikalaren militantea



“Emakumeak gara zapalduenak bai, baina, era berean, indartsuen oihukatzen dugunak ere bagara. Gure ezberdintasunak onartu behar ditugu, baina elkarrekin mantendu behar gara, emakume gisa gure borroka aldarrikatu eta aliantzak ehundu behar ditugu: lehenetsuna eman behar diogu batzen gaituenari, ez ordea banatzen gaituenari”

Seydi Irias, hondurastar LGBTIQ+ eskubideen defendatzailea.



Mariana Moralesi elkarrizketa

(Chiapasko kazetari eta erreportari independentea, Mexiko)

“Autozainketeta tik istorioak kontatzen”

"Candela Radio" irratian Sayuri Nishime-k
eginiko elkarrizketa

*Candela Radio <https://candelaradio.fm/>
kultura arteko komunikazio-proiektu bat da,
aldaketa sozialak eta herritarren parte-hartzea
sustatzea helburu duena, eta giza
garapenerako elkarrizketa-bide gisa
funtzionatuz, herrialdean dagoen aniztasun
kulturala eta eleaniztasuna nabarmenduz.*

Badira berehala isilarazten zaituzten
ahotsak. Mariana Morales Chiapasko
(Mexiko) kazetariaren kasuan, lurraldearen
aldeko manifestarien oihuak izan ziren
buruan klik egin ziotenak. Harrezkero,
etengabe kontatu ditu borroka sozial,
feminista, indigena, osasunaren arlokoak,
narkotrafikoa eta pertsonen salerosketa
salatzen dituzten istorioak, besteak beste.
Kazetarien eskubideak uneoro urratzen
diren herrialde batean, bere argitalpenak ez
ziren oharkabean pasatu. Mehatxuen
ondorioz, Bartzelonako udalaren "La Taula
por México" behin-behineko harrera
programaren barruan dago. Baina horrek ez
du geldiarazi. Urrutitik idazten jarraitzen du,
baina oraingoan bere bizitza erdigunean
jarriz eta bera eta bere lagunak zaintzeko
moduak birpentsatuz.

**Zuretzat eta zure kazetaritza kideentzat
praktika garrantzitsua bilakatu da
topaketa bakoitzean nola zaudeten
galdetzea. Hortik hasiko gara hortaz, nola
zaude?**



Kazetaritzan diogun bezala, igorlea ondo ez
badago, mezua ere gaizki iritsiko da. Hori oso
garrantzitsua da, erreportari, kazetari eta
komunikatzaile garen heinean, askotan
mingarriak eta bidegabekeriazko istorioak
kontatu behar ditugulako. Min eta
sentimendu horiek gure gorputzak
zeharkatzen dituzte. Beste hainbat
erreportariekin batera elkarlanean ari gara,
Mexikoko estatu askoko lankideekin, eta
garrantzitsua da gaiak lantzen hasi aurretik
geure buruari galdetzea nola sentitzen garen,
nola gauden, nola joan zaigun, aste honetako
estaldura nola joan den... etxean zerbait oso
gogora izan baldin badugu, elkarrekin
hausnartzen dugu eta gure gorputzak
zeharkatzen dituzten tentsio egoera horiek
baretzeko zer egin dugun kontatzen dugu. Ni
asko barneratzen naiz istorioetan, baina orain
konturatu gara besteak zaintzeaz gain,
istorioak ere zaindu behar ditugula geure
burua ere zaintzeko. Hori garrantzitsua izan
da nire herrialdean, Mexikon, istorio horiek
idazten jarraitzeko.



Defendatzaileez ari garenean, giza eskubideen, lurraldeen, lurraren, gorputzen, uraren eta herrien defentsaz hitz egiten ari gara. Baina defentsa hori kazetaritzatik ere abiatzen da. Hala ere, komunikabide gutxik hartzen dute konpromisoa borrokan, kazetari independenteak edota komunikabide natiboak dira orokorrean, gertakari horiek kontatzeko espazio bat ez izatearen ondorio gisa sortu diren horiek alegia. Zein izan da zure esperientzia kasu horretan?

Kazetaritzaren eta kazetariaren artean desberdintasun bat egin beharko genukeela uste dut, alde handia baitago komunikabide tradizionalak argitaratzen dutenaren eta guk egiten dugunaren artean. Adibidez: Estatu desberdinetan dauden nire saretzat jotzen ditudan lankide asko, komunikabide tradizionaletan edo independenteetan lan egiten dutenak, kazetaritza horren bi aldetik lehian aritzea oso garrantzitsua da. Nahiz eta batzuek dioten bezala, ordaintzen dutenak izan edo komunikabide independenteak izan, guk sinesten ditugun istorio hauek idazten jarraitu behar dugu. Orain, giza eskubideen eta biztanleria indigenaren inguruko gai bat lantzen ari gara beste lankide batekin, eta finantzazio iturriak edo bitartekoak bilatzen ditugu gure istorioetan sinesten duten erakundeen artean. Eta hortik abiatuta idazten jarraitzeko aukera dugu, kazetaritzan denbora, dirua eta eskuragarritasuna behar-beharrezkoak baitira. Guk eskuragarritasuna daukagu baina, tamalez, askotan dirua da falta zaiguna. Eta gai sakon bat landu nahi dugunean (ikertu, lekuetara joan, bertako jendearekin hitz egin....), askoz saiagoa da guretzat. Ez da soilik bertara iristea, elkarrizketatzea eta alde egitea. Ez gara inbaditzaileak. Beraz, beraiekin adosten dugu argitaratu eta idazten duguna ondoren bueltan eramateko. Dirua behar da bai, baina guk espazioak bilatu nahi ditugu.

Bestalde, ohartu gara mehatxuak ez direla berberak guretzat, emakumeontzat, eta gizonezkoentzat. Esate baterako, duela gutxi herri-lur biltzar batean izan nintzen Palenquen (Chiapas), non bertako lur-jabeek Maia Trenbidearen proiektuaren inguruan eztabaidatzen ari ziren. Kazike batek zioen emakume kazetariak ez luketela hara joan behar, haiek bortxatzeko arriskua zegoelako eta gero, hiltzen badituzte, bertako gizon

batek hil zuela esan zezakeelako eta berarekin lotu. Emakume ejidatariorak altxatu eta defendatu egin ninduten, eta honakoa esan zioten pertsona horri: «Gauzak ez dira horrela, kontuz handiz ibili behar zara esaten duzunarekin». Batzuetan ez dira soilik emakume erreportarien sareak ahotsa altxatzen dutenak, baizik eta tokian bertan dauden eta iristen zarenean babesa ematen dizuten emakumeak ere badira. Alde hori ere oso garrantzitsua dela uste dut, Mexikon kazetarien hilketak areagotu egin baitira eta gure aurkako indarkeria asko igo egin delako, eta horrek kazetarien eta gizartearen arteko deskonexioa ere bideratu zuen. Neurri handi batean gu ere boteretik oso gertu eta jendearengandik oso urrun izan garelako, eta hausnartu beharko genuke pertsona horiekin berriro ere nola konektatu, gure arteko sare hori ez ezik, jendearena ere izan dadin.

Indarkeriazko testuinguru horietan, nola identifikatu ditzakegu hain agerikoak ez diren horiek?

Kazetaritzan gutxien identifikatzen duguna indarkeria instituzionala dela uste dut, beti gizon funtzionarioak baititu buru. Gogoan dut orain dela gutxi beste estatu batzuetako kazetari batzuekin hitz egin nuela, ikerketagaitan oso espezializatuta zeudenak, eta artxibo publikoren bat edo espedienteren bat eskatzen zutenean gertatzen zitzaizkien egoera guztiak kontatu zizkidaten. Informazio-pakete hori ematen zieten bai, baina presentzialki izan behar zen beti. Izan ere, askotan, nahiz eta Plataforma Nacional de Transparencia delako hori erabiltzen dugun gure gobernuei galdetzeko, askotan aurrez aurre joan behar izaten dugu. Eta ematerako unean zalantzan jartzen dituzte sarritan, edota emakume erreportari izateagatik botatzen dizkieten komentarioak, are gehiago bakarrik doazenean. Benetako arazoa zein den konturatzen zara une horretan. Ez da batere normala, egoera hori ikusarazten eta salatzen hasi behar dugula uste dut. Hori identifikatu dezakegun indarkeriarik sotilena dela esan dezakegu, eta bestea Maia Trenbidearen kasuarekin gertatu zitzaidana, askoz zuzenagoa izan zena.

Bizitza istorioak kontatzea funtsezko ariketa bilakatu da jada, ez soilik kazetaritzan, baita kantuetan, poesian, liburuetan, marrazkietan, argazkietan eta beste hainbat eta hainbat formatutan ere.



Zerk ahalbidetzen digu istorio horiek kontatzea?

Kazetaritza bizimodu bilakatu da niretzat. Uste dut guretzat erronka nagusia ondo kontatutako istorio bat idaztea dela, ikasle batek edo profesional batek irakur dezan eta edonori interesa diezaion. Gainera, testuaren barruan salaketak bideratzea bai baina, aldi berean, baita konponbideak azaltzea edo planteatzea ere. Askotan gertatu izan zait zerbait idatzi izana eta pertsona berei ez galdetzea zein izan daitekeen irtenbidea, izan ere, nori daki gehiago irtenbideei buruz bertako pertsonak baino? Gure konpromisoa hori izan beharko litzateke: salatzea eta informatzea, baina baita historia batzuek itxaropena izatea ere.

Aldi berean, kazetariok espezializatzea eta gauzak zergatik gertatzen ari diren kontatzea ere oso garrantzitsua dela uste dut. Askotan idazten dugu zer eta nola gertatzen ari diren gauzak, baina zergatia azaltzea ahaztu egiten dugu, eta hori ere oso garrantzitsua da gainontzekoek ezagutu dezaten. Nire lankideei orain urte batzuk esan niena oraindik gogoratzen dut, Acteal komunitatean paramilitarrek biztanleria indigenaren kontra egin zuten sarraskiaren inguruan idazten nengoela. Gobernuak ez zien inolako jaramonik egin emakumeek oraindik ere gainean daramaten kalte emozionalari aurre egiteko. Belarrekin nola artatzen ziren idatzi nuen, baina orain konturatzen naiz haiek sendatzeko zuten jakinduriaren alde hori gutxietsi egin nuela. Hala ere, duela gutxi, Estatu Batuetan COVID-19aren ondorioz hil ziren emakume indigenen inguruan idatzi dugu, eta hor bai ikusi eta azaldu dugula Gobernuak eta Kontsulatuak jaramonik egin ez zieten egoera horietan, beraiek artatu zirela euren kabuz. Nola antolatu ziren eta gaixotasun berri honi aurre egiteko moduak nola bilatu zituzten ondo azaldu genuen.

Mexiko kazetarien giza eskubideak gehien urratzen eta hausten dituen herrialdeetako bat da gaur egun. 2021ean zazpi pertsona hil dituzte eta beste bost 2022an. Zuk lehen pertsona bizi izan dituzu mehatxu horiek, Bartzelonako "Barcelona protege a periodistas de México, La taula per Mexico" aldi baterako harrera programan parte hartzera eraman zaituena. Zure segurtasuna bermatu beharko luketenak haren atzetik dabilzanak ere diren testuinguru

horretan. Nola jarri ditzakegu zainketak ardatz nagusi gisa?

Mexikon Gobernu Federalaren mekanismo batek babesa eskaintzen die mehatxatuak izan diren kazetariei, edo hauen ondorioz beren estatuetatik ihes egin behar izan dutenei, baina ikusten ari gara horrek ez duela ezertarako balio, oraindik ere lankideak hiltzen jarraitzen dira. Oso gertuko lankide bat dut prozesu honen baitan dagoena, eta hain zaila izaten ari den autozainketaren esparruaz aritu zitzaidan orain dela gutxi. Bartzelonako Udalak bideratutako "La Taula por México" ekimenaren bidez eskaintzen dituen espazio horiek oso funtsezkoak dira arnasa hartu ahal izateko, eta gauzak nola egiten ari garen eta berriro nola itzuliko garen jakiteko, kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko geure burua arriskuan jarri gabe. Hemen, nire herrian ez dagoen espazio bat aurkitu dudala uste dut, baina garrantzitsua da bertara itzultzea eta lankide gehiagorekin partekatzea.

Nola hartu dezakezu zuretzako denbora hori argitaletxeek presioa egiten badizute albisteak entregatzeko denbora eta berehalakotasun horrekin?

Horrelakoak gertatu izan zaizkit bai, baina lankide batzuek esaten didaten bezala, idazten ari garenaz gozatu egin behar da, entzuten ari garenaz. Duela hilabete gutxi gertatu zitzaigun, Ignoradas hasta el muerte izeneko istorio bat argitaratu genuenean, podcast bat ere egin genuela. Hori da nire erronka nagusia: nire gorputza gehiago entzutea, neure burua hobeto ezagutzea. Ulertzea zergatik ari naizen estaldura ematen hauek bezalako istorioei, zergatik idazten ditudan eta zergatik asetzen nauten istorio horiek. Lehen, garrantzi handia ematen nion lanaren profesionalizazioari, ikerketa-tresnak ikasteari adibidez. Gainera, gustatzen eta maite dudana zerbait da, horri esker kazetaritza indartsuagoa egin dezakegula uste dut, tresnak horiek hobeto ulertzeko ikastaro eta tailer ugari parte hartzen nuen. Pandemia hasi zenean, eta Internet bidezko doako ikastaro asko eta asko agertzen hasi zirenean, "ijole, nik denetan parte hartu nahi dut" pentsatu nuen. Eta kazetari asko miresten ditut eta ikastaroak eman nahi nituen haiekin, ezetz esan nuen arte. Ezin naiz hainbeste kargatu. Hamar urtez egin ez nuen zerbait egin nuen: nire gorputza entzun nuen eta atseden bat hartu nuen. Orain, ezagutzaren profesionalizaziotik



haratago, berriz konektatzeko dudan modua da. Lehenik ni izan behar naiz, ondoren gehiago eta asko izateko.

Aste honetan zehar partekatzen aritu naizen ikaskide bakoitzaren ikasketarekin banao Euskal Herritik, indartu egin nautenak eta, nik jakin gabe, nigan feminismoaren hazi sortu dutenak ere.



Agenda

MARTXOA

<u>L</u>	<u>M</u>	<u>X</u>	<u>J</u>	<u>V</u>	<u>S</u>	<u>D</u>
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

MAHAI-INGURUA MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

martxoak 15

Oraingo honetan, lurra eta lurraldea defendatzen duten emakumeen errealitateak euskal herritar gazteenei hurbildu nahi dizkiegu, gizarte eraldaketa lortzeko hezkuntzak erabateko indarra duela uste baitugu. Horretarako, Mondragon Unibertsitateko ikasleen eta Deisy Rivera komunikatzaile alternatibo eta feminista komunitarioaren arteko solasaldia egingo da. Elkarrekiko ikaskuntzarako espazio bat izango da, eta bertan herri komunikatzaileen errealitatearen inguruan hausnartu eta iritziak trukatu ditugu.

HAZI EREITE KOLEKTIBOA

martxoaren 18an eta 19an

Asteburuan, erakunde ekologista, feminista eta arrazakeriaren aurkako erakundeetako emakumeen arteko topaketa egingo da, haziak taldean ereiteko. Topaketa honek ingurumenaren suntsiketak naturan eta herrien bizitzan duen eraginari buruz hausnartzeko ere balioko du, batez ere lurraren eta lurraldearen defendatzaile diren emakumeentzat. Baita erabateko kentzearen aurkako erresistentzia-borroken garrantziaz eta egungo ekoizpen eta kontsumo eredia birplanteatzeko beharraz ere.



Olerkia (Rosa Chávez)

HILABETE BAT

Hilabete bat pasa da
hiriburura ailegatu nintzenetik
aitak bakarrik laga gintuen
eta etxean goseak min ematen zuen,
etxe batean lanean nago jada
(neskame gisa dio ugazabak)
nahiz eta hitz horiek ez ulertu,
oihalez egindako jantzia eman zidaten
egun hartan negarrez hasi nintzen, negar zotinka
lotsatuta nengoen
eta ez nituen hankak erakutsi nahi,
ugazabak dio nire herrian
shuco-ak garela oro
egunero garbitu beharra dut horregatik
nire ile luzea moztu zuten
buru-zorriak aitzaki,
ezin dezaket Castillaz mintzatu
eta nitaz barre egiten dute,
nire bihotza triste dago orain,
lehengusina ikustera
pozik joan nintzen atzo,
gidariak ez zuen paratu nahi
eta arrapaladan joan zen
apúrate india burra – erran zuen
erori eta zauritu nintzen,
barrezka jendea
eta nire bihotza triste,
lehengusinak dio

PA RI IK' KANOQ

Pa ri ik' karoq
Xinpe pa le nima tinamit
Xojuya' kan ri qatat,
Kq'oxow ri numik pa ri qachoch
Kinchakun chi pa jun ja
(aj b'anal wa kcha le ixoq chi wech)
Pine' qas ta kinch'ob'o jas uwach ri',
Xya jun patzapik watz'yaq
Xinnoq'ik, sib'alaj naj xinnoq'ij
Kink'ix che
Rumal chi kuch'uq ta le nuch'ek
Le ixoq kub'ij chi qonojel ri oj ajkomon
K'is oj tz'il
Rumal ri' kinatin ronojel q'ij
Xramix le nuwi'
Kb'ixik chi kumal le uk'
Qas ta kinkowinik kinch'w pa kaxla'n
Rumal ri ketze'n ri winaq chi wij
Kb'ison ri wanima
Iwir xinb'e che rilik ri ch'utwachalal
Kinki'kotik rumal chi xinkoj b'i ri wuq
Kraj ta le ajb'insanel kutak'ab'a' ri ch'ich'
Are chi' xinqajik aninaq xurininej b'i ri ch'ich'
-Chakowij kejalaj ali- xcha chi wech
Xintzagik xinqol uwach nuch'ek
Kkikamisaj kib' ri winaq che tze'



ohitu egingo naizela azkenean,
igandean herriko plazara joango gara,
dantza aretoak omen daude
azokara heltzen diren taldeentzat
nire herritarrentzat,
nire gelan nago orain
ordaindutakoa zenbatzen,
xaboia eta apurtutako bi edalontzirena sor,
kaikua naizela dio ugazabak,
gaizki tratatzen naute eta ez dakit zergatik
ez naiz ni izaki bat izango, akaso?

Rumal ri' xb'ison ri nuk'u'x
Kub'ij ri ch'utwachalal
Chi nojim la' ku'kam nuk'u'x
Chi pa ri q'ij rech uxlanib'al kojb'e pa ri
wa'katib'al
Kub'ij chi k'o taq ja rech xojoj
Kuk'le ajq'ojomab' le qas ke'opan pa le qakomon
pa taq nimaq'ij
Ink'o pa ri laj nuk'olib'al
Tajin kwajilaj ri pwaq ri xinch'ako
Xelesaj kan rajil ch'ipaq xuquje' le keb' xa'r
xinwulij
Le nan kub'ij chi sib'alaj intux
Kinch'ob' taj jas che kb'an k'ax chi wech
¿La xa k'u in winaq taj?



1980an jaio zen San Andres Itzapan (Chimaltenango, Santa Cruz del Quiché, Guatemala). Jatorriz maia k'iche aitaren aldetik eta maia kaqchiquel amaren lerrotik.

Poeta, aktorea, kultur kudeatzailea, animatzaile soziokulturala, artisaua eta lehen hezkuntzako irakaslea da.

*"Rosa Chavezek EZLNko emakumeek antolatutako topaketan ozen irakurritako olerkia./Alejandra Hidalgo,"
Pikara Magazinen argitaratua.*

